


## FUNTSEZKO JARDUERAK:

Enpresa guztiek funtsezko jarduera batzuk egin behar dituzte saltzen duten produktua arrakastatsua izan dadin. Gure enpresaren kasuan hiru jarduera egitea erabaki dugu: ekoizpena, arazoak konpontzea eta sareko jarduerak.

Lehenik eta behin ekoizpena dugu. Gure lehoragilua guk produzituko dugu gure fabrikari; horretarako makineria, tresnak eta lehengaiak behar ditugu. Material guztia beste enpresa bati erosiko diogu oraingoz, baina gure enpresa arrakastatsua bada lehengaiak gu produzitzea pentsatu dugu etorkizun batean. Makineria eta tresneria beste enpresa bati erosiko dizkiogu. Gure ideia, makinerian eta tresnerian nahiko inbertitzea da, azkenean produktu bat ona izateko ekoizpen baliabide onak izan behar dituzu; eta berdina lehengaiekin.

Bigarrenik arazoak konpontzearen jarduera dugu. Enpresa bat irekitzean ezinezkoa da arazorik ez suertatzea; beraz, garrantzitsua da guretzat arazoi horiei aurre egiten jakitea. Horretarako, kideen artean laguntza ematea funtsezkoa da, arazo bat gertatzean guztiok batera konpontzeko. Hala ere, arazo larriren bat gertatuko balitz, arazoaren gaian profesionala den pertsona batekin kontaktuan jarriko ginatke. Baina adibidez erosketa batekin arazo bat egongo balitz eta bezero bati iritsitako produktua gaizki funtzionatzen badio, pertsona horrek lehorgailua bueltatzeko aukera edukiko du eta guk dirua bueltatuko genioke.

Bukatzeko sareko jarduerak ditugu; hau da, webgunekoak. Dakizuen bezala, gure denda bakarra online izango da; hortaz, ondo funtzionatu behar du. Hori dela eta, gure webgunearen diseinua profesional baten eskuetan utziko dugu. Txukuntasuna, erosotasuna eta argitasuna dira guri beharrezkoak iruditzen zaizkigun baldintzak webgune bat ona eta ekoizkorra izateko.



shutterstock.com · 2010576512